

ikasleen txokoa

HERNANI INSTITUTUA



Animazio Soziokulturaleko 2garren mailako ikasleak,
Amnistia Internazional-ekin elkarlanean / II



Xaboi Tailerra/ III



Bitxikeriak / III

Donostiako Nazioarteko Zinemaldia
Lehen Sorospen ikastaroa
Lanbide heziketako Praktikak atzerrian
Pastak egiteko tailerra

Liburu Kritika/ IV

'El destino del barón Von Leisenbogh'



Egileak/ IV



Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

HERNANI INSTITUTUA

Amnesty International

Hernani Institutuko goi mailako Animazio Soziokulturaleko 2. mailako ikasleak, Amnistia Internazionalarekin elkarlanean proiektu bat egin dugu. Proiektu hau aurrera eramateko ezinbestekoa izan da Ainhoa García eta Oihana Ortégaren (Gure institutuko animazio soziokulturaleko ikasle ohiak izan direnak) laguntza, beraiek Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) honetakoak izanik, aukera hori eskaini digutelako.

Proiektu honekin Animazio Soziokulturaleko zikloan ikasitako hainbat ikaskuntza praktikan jartzeko aukera izan dugu. Izan ere, "Komunitate-Garapena" moduluaren irakasleen gidaritzapean gizarte alorreko benetako proiektu bat diseinatzeko eta praktikan jartzeko aukera izan dugu.

Proiektu honen xedea, emakumearen giza eskubideak aldarrikatzea eta hauen urraketak salatzea da. Gaur egungo gizartearen eta orain datozen pentsamoldeek matxista izaten jarraitzen dutela iruditzen baitzaigu. Hori aldatzeko garaia delakoan, emakumeak errespetatu eta gizonen eskubide berberak dituztela aldarrikatu nahiko genuke.

Proiektu hau DBHko 12-16 urteko gazteei zuzenduta dago. Adin hau interesgarria eta eraginkorra iruditzen zaigu hainbat ideia eta jokabide aldatzeko. Beraien adina kontuan izanik, ahalik eta erakargarriena egiten saiatu gara.

Animazio Sozio Kulturaleko hainbat ekintza diseinatu ditugu, ikasleak gai honen inguruan sentibilizatu daitezten. Jolasean oinarritutako proiektua da modu eraginkorrago, errazago eta alaiago batean lantzeko.

Egitasmo honetan, emakumearen hainbat arlo ezberdin landu ditugu, besteak beste: kirola, erlijioa, publizitatea, kultura, musika... eta abar. Gezurra dirudien arren, gaur egun oraindik ere gizartean oso errotua dago matxismoa eta emakumea gutxiago delako ikuspegia. Argudio honen adibide garbi bat musikan ikus



dezakegu: Topatu dugun abesti baten letrak honakoa dio: "Y si ella se porta mal, dale con el látigo, si se sigue portando mal, dale con el látigo y si ella se porta mal, dale con el látigo, dale con el látigo, dale con el látigo."

Gaur egun honelako pentsaera bultzatzea lotsagarria iruditzen zaigu. Baina musikaz gain, beste hainbat arlotan topa dezakegu diskriminazio hau.

Proiektuak zati desberdinak ditu. Zati bakoitzean, lehen aipaturiko gaiak lantzen ditugu eta guk hauek diseinatzeaz gain dinamizatu ere egiten ditugu. Gai hauetan emakumearen papera eta betebeharra lantzen dugu. Bukaerarako, fitxa-joko erraldoi bat prestatu dugu, eta bertan aurrez ikusitako gaietatik ateratako galderak egiten ditugu. Gainera, hainbat proba ere pasa beharko dute garaile izateko.

Proiektu hau praktikan jartzeko DBHko hainbat ikastetxerekin harremanetan gaude. II

IZARO PIKABEA ETA CAROLINA GARCIA
Hernani Institutua



ikasleen txokeroa



Xaboi tailerra

Tailer honetan bi motatako xaboiak egin ditugu: bata, sosa eta olio erabiliaz (beraz, birziklatu egiten dugu) eta bestea, glizerina solidoaz.

Olio erabiliarekin egindako xaboiak:

Tailer honetarako olio erabilia, sosa, ura, koloratzailak eta esentziak (hautagarri) behar ditugu. Lan eta denbora asko daraman tailerra da, 2 ordutik 4 ordura iraun dezake, produktu guztien nahasketa berotu eta etengabe eragin behar baita besteak beste. Aldiz, honen abantailak olioaren berziklapena eta oso merke ateratzen dela dira. Xaboi mota hau, bai likido eta bai solido mo-

duan aurkez daiteke. Beti erabili izan den xaboa da eta oso ondo kentzen ditu arropetako zein altzarietako mantxak.

Glizerinazko xaboiak:


Xaboi mota hau egiteko aldiz, glizerina, koloratzailak, esentziak eta alkohola behar dira. Xaboi hauek oso erraz egiten dira. Molde ezberdinak erabiliz itxura desberdinak emateko aukera ematen dute. Xaboi mota hau ez da arropetako mantxak garbitzeko aproposa, baizik eta erabilera pertsonalerako, perfume gisa, apaingarri moduan... Tailer hau oso erraz egiteko da eta ordu bete eskasean egin daiteke.

Adin ezberdinetako jendearentzat egokia da, umeetatik hasi eta helduetaraino.

Tailer hau egiteko prest egongo ginateke. Norbait interesaturik balego, gurekin harremanetan jar daiteke, Gizarte eta Kultur Animazioko 1. mailako ikasleei zuzenduz, honako helbide edo telefonoan:

Hernani Institutua
Santa Barbara auzoa z/g
Telefona: 943 551188 / Faxe: 943 552271
Posta Elektronikoa: institutua@hernanibhi.com ||

OIHANE SANZ ETA NAGORE ZUBITUR
Hernani Institutua



BITXIKERIAK



Donostiako Nazioarteko Zinemaldia.

Donostiako Nazioarteko Zinemaldian zinemako historian eta filmak botatzeko antzinako tresnerian aditua den Josep Maria Queraltó -rekin egon ginen Kurasaalean egin zen erakusketan. ||

Lehen Sorospen Ikastaroa.

Giza eta kultur animazioko ikasleek "Gurutze Gorria" erakundearekin Lehen Sorospeneko 14 orduko ikastaroa jaso zuten. Bertan, besteak beste, etxeko istripu txikietan nahiz beste erako istripuetan nola jokatu ikasi zuten. ||



Lanbide Heziketako Praktiak

atzerrian. Argazkian agertzen diren Maitane Cabeza, Carolina García eta Nagore Sanchez, Goi Mailako Gizarte eta Kultur Animazioko ikasleak Irlandara joango dira martxoaren 17tik ekainaren 7ra. Leonardo Proiektuari esker, Elektrizitate eta Mekanikako goi mailako zikloetako beste zenbait ikaslerekin batera. ||




Pastak egiteko tailerra. Neguan gaudela eta pasta goxo batzuk egin ditugu, etxean su bazterrean kafe batekin goxo-goxo hartzeko. ||

Orri honen egileak:



LIBURU KRITIKA



'El destino del barón Von Leisenbohg'

IDAZLEA:

Arthur Schnitzler

Bakarrik, bakar bakarrik!
Bere maitearen hilobiaren aurrean dago, eta eskuan darama oraindik bere maitearen hatzen usaina duen luma. Goizero paseatzen da hilerritik, hilobien artean, eta jendea negarrez eta erre-guka ikusten du. Bertan dabilen jendea ezagutzen hasten da... Nor da ile hori eta begi tristedun gizon hori? Nori egiten dio negar?
Berak bisitatzen duen hilobia nire emaztearen hilobitik oso gertu dago. Gizon horrek nire arreta piztu du. Ezagutzen dudala uste dut. Bidaiaren batean topo egingo genuen? Agian antzokian? Edo kalean? Horrela bakarrik uler dezaket inoiz ahaztuko ez dudana begirada hura...
Gaztea eta ederra da.
Egun horietako batean hilerriko ormaren ondoan nengoela, nola iristen zen ikusi nuen. Bera zen! Poliki-poliki egunero joan ohi zen lekura zuzendu zen, eta belaukatu egin zen. Nire emaztearen hilobiaren gainean belaukatu zen! Ez zuen errezatzen, ezta negarrik egiten ere. Berehala zutik jarri zen eta beti bezala hilerriko bide guztiak zeharkatu zituen. Nire aurrean gelditu eta lasai-lasai begiratu ninduen. Deitu nahi izan nion, baina ez nion deitu... nor da nire emaztearen hilobiaren aurrean belaukatzera ausartzen den gizon hori? Zer zen nire emaztea gizon harentzat? Zer egin hori jakiteko? Bat-batean nire iragana guztiz zatikatu zen. Erotu egin ote naiz? Agian nire emazteak ez ninduen maite? Nor da gizon gazte eder hori? . II

NAIARA ANZIZAR
Hernani Institutua

Ikasleen Txokoa

**Ikasleen Txokoa kaleratzen da
Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta
Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker.**

URUMEA
IKASTOLA



INMACULADA
IKASTETXEA



HERNANIKO
UDALA



Hernani Institutua
A. Iturriaga - K. Labaka

Hernanik
kronika